



ELHUYAR  
aholkularitza



# EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO AUKERA-BERDINTASUNA ERRENTERIAN

---

## DIAGNOSTIKOA



Aurkibidea.....	2
Sarrera.....	3
0. Metodologia.....	5
0.1. Diagnostikoaren helburuak.....	5
0.2. Diagnostikoa egiteko metodologia.....	6
0.3. Diagnostikoa egiterakoan aurkitutako zailtasunak.....	8
1. Aukera-berdintasuna udalean.....	10
1.1. Arlo politikoan.....	10
1.2. Arlo teknikoan.....	12
1.3. Ondorioak.....	15
2. Aukera-berdintasuna udalerrian.....	17
2.1. Kultura.....	17
2.2. Kirola.....	22
2.3. Lana eta enplegua.....	27
2.4. Hezkuntza.....	32
2.5. Hirigintza eta garraio publikoak.....	37
2.6. Gizarteratzea.....	41
2.7. Osasuna.....	47

*I. ERANSKINA: Proiektu honen garapenean parte hartu duten udalerriko asoziazio eta entitateak*



- Dokumentu honek jasotzen du **Errenteriako emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren diagnostikoa**. Diagnostiko hau Elhuyar Aholkularitzak osatu du Udalaren eskariz.
- Diagnostiko honekin eta ondoren diseinatutako Planarekin, Errenteriako Udalak bat egin nahi du azken urteotan **onartutako araudien garapenerako lanean** ari diren udalerriekin, egun arlo honetan indarrean daudenak hain zuzen.
- Era berean, proiektu honen bidez, Errenteriako Udalak **bat egin** nahi du **BERDINSARE**ekin, EUDELeK (Euskadiko Udalen Elkarte) eta EMAKUNDEK (Emakumearen Euskal Erakundea) 1985an martxan jarritako Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Euskal Udalerrien Sarearekin.
- Dena den, proiektu hau gauzatzearen arrazoi nagusia **Udalak herritarren bizi-baldintzak hobetzeko duen interesean** datza, besteak beste, generoen arteko desberdintasunak gutxitzen joan daitezen eta berdintasunezko gizarte baterantz pausoak emateko.



- Honenbestez, txosten hau proiektu honen lehen faseari dagokio. Hona hemen modu grafikoan aurkeztuta:

**Aukera-berdintasunaren inguruko diagnostikoa**

**Diagnostikoa osatzeko urratsak:**

- Zeharkako informazioa biltzea
- Elkarrizketak
- Lantaldeen bilerak (lehen erronda)
- Kontrastea maila teknikoan, politikoan eta herritarrenean

**Berdintasun Planaren diseinua eta onarpena**

**Plana osatzeko urratsak:**

- Lantaldeekin bilerak (bigarren erronda)
- Plana idaztea
- Plana onartzea udal-batzarrean

**Berdintasun Planaren garapena**

**Plana garatzeko urratsak:**

- Behar diren egiturak martxan jartzea
- Helburuak eta ekintzak garatzea
- Etengabeko jarraipena



### 0.1. Diagnostikoaren helburuak

Diagnostikoa prozesu zabalago baten atal gisa ulertzen dugu. Honenbestez, eta diagnostikoa parte-hartzean oinarritu dugunez, diagnostikoaren helburu nagusia herritarrak emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen inguruan **parte hartzen** hastea da, baita **ikusarazten, aztertzen eta kontzientziatzen** hastea ere.

Diagnostikoaren prozesuak honako **helburu** hauek izan ditu:

- **Informazioa biltzea** Errenteriako emakumeen eta gizonen ezaugarriak, beharrak eta iritziak ezagutzeko.
- Sexuari lotutako **desberdintasunak edo diskriminazio-egoerak antzematea**.
- Ekintza positiboen plan bat diseinatzeko **oinarri sendoa lortzea**.
- **Hasierako egoeraren erreferentzia ezartzea**, plana martxan jarri ondoren alderatu ahal izateko.
- Plana garatzeko **bal dintza subjektibo eta objektibo egokiak sortzea**.




### 0.2. Diagnostikoa egiteko metodologia

- **Zeharkako datu kuantitatiboak biltzea:** hainbat iturritako datuak bildu ditugu (Errenteriako Udala, Oarsoaldea Garapen Agentzia, Eustat...) sexuaren arabera bereizita ahal izan den kasuetan.
- **Bigarren mailako dokumentazioa biltzea:** informazio baliagarria eskaini diguten beste proiektuetarako egindako txostenak bildu ditugu (Udaleko zenbait sailetako memoriak, Oarsoaldeko memoria, e.a.).
- **Elkarrizketa sakonak:** herriko hainbat arlotan lan egiten duten teknikariak elkarrizketatu ditugu (Udaleko teknikariak, Oarsoaldekoak, Osakidetzakoak...).
- **Lantaldeen bilerak:** 7 talde osatu dira, besteak beste, herriko taldeekin eta eragileekin, antolatu gabeko herritarrekin eta Udaleko teknikariek. Lantalde horietatik 6 arlo jakin bati lotuak egon dira eta azkenak ikuspegi orokorragoa eta integralagoa izan du.
- **Talde eragilea:** Elhuyar Aholkularitzako teknikariek eta Amaia Arotzenak (proiektuaren Udaleko arduradura) osatua. Prozesuaren garapenerako beharrezkoak diren alderdiak landu eta proiektuaren etengabeko jarraipena egiteaz arduratu da.



70 parte-hartzaile

ELKARRIZKETAK	
Asun Hernández	Lehendakaritza eta barne-erregimena
Santxo Leizaola	Kultura, Hezkuntza eta Gazteria
Pablo Martín Edurne Irureta	Zirkulazioa eta garraioa
Enrique Ponte	Hirigintza, Mendiak eta Ingurumena
Amaia Arotzena	Gizarte-zerbitzuak eta emakumeen parte-hartzea
Arantxa Etxezurieta	Euskara
Luis Peña	Kirol-patronatua
Ana Urzelai	Oarsoaldea
Marivi Gil	Osakidetza





### 0.3. Diagnostikoa egiterakoan aurkitutako zailtasunak

- **Bildu ditugun datuak, kasurik gehienetan, ez daude sexuaren arabera bereizita:** horrek asko zailtzen du sexuaren araberako desberdintasunak identifikatzeko lana eta desberdintasun horietaz ohartzen ez garen neurrian, ezin dugu errealitate horretan eragin.
- **Herrian den parte-hartzearen inguruko kultura eta aurretik egindako parte hartzeko prozesu batzuk eragin duten asebetetze-maila:** prozesuan zehar aipatu eta presente egon diren alderdiak izan dira.





## 0.4. Herritarrekin egindako lan bileren balorazioa

	CULTURA Y DEPORTES	VALORACION	1 REUNION	2 REUNION
EGINDAKO LANA TRABAJO REALIZADO			XX XX X X + X	XX
PARTE- HARTEA PARTICIPACION			X X X X	XXXX XX
ASISTENTZIA ASISTENCIA	XXXXXX X X	X X X		
GIRCA AMBIENTE			XX + X	XX + XXX X
TOKIA LUGAR	X	XXXX + X	X X X	X

- 7 lan-taldeek positiboki baloratu dute **bileretan egindako lana**. Era berean, partaideek positiboki baloratu dute bileretara bertaratutakoen parte-hartzea eta lan-giro atsegina.
- **Asistentziari** dagokionez, talde askok negatiboki baloratu dute, bileretan eragileak edo taldeak falta izan direlako. Gonbidapenak egin dira, baina hainbat taldek ez dute parte hartu zenbait arrazoi direla medio.
- Bileraren **lekuari** dagokionez, areto desberdinak erabili dira eta hauek era desberdinetan baloratu dira, batez ere, bertaratu diren pertsona-kopuruaren arabera, beti ez baita aurretik jakin. Batzuetan areto handiegi geratu da eta besteetan leku falta egon da.



# 1. AUKERA-BERDINTASUNA UDALEAN

## 1.1. Arlo politikoan



EGUNGO EGOERA					
Emakumeen eta gizonen presentzia udal-organoetan					
ORGANOAK	GUZTIRA	Emakumeak		Gizonak	
		Kopurua	%	Kopurua	%
Gobernu-batzordea	8	2	25	6	75
Informazio-batzordeetako arduradunak	13	3	23	10	77
Patronatuetako eta kontseiluetako arduradunak	5	1	20	4	80
Alderdi politikoaren ordezkariak	21	7	33	14	67

Iturria: Errenteriako Udala, 2007

### BALORAZIOA / PERTZEPZIOA

- Emakumeen presentzia murrizta da organo politikoetan. Kargu hauetan dauden pertsona guztien laurdena emakumeak dira; beste hiru laurdenak, berriz, gizonak dira.
- Patronatu edo kontseilu baten lehendakari den emakume bakarra zaharren egoitzaz arduratzen da.
- Dauden 13 informazio-batzordeetatik, emakumeak 3 batzordetan besterik ez dute arduradun-kargua. Batzorde hauek dira, besteak beste, zirkulazioa eta garraioa, merkataritza eta garapen ekonomikoa eta gizarte-zerbitzuak.



# 1. AUKERA-BERDINTASUNA UDALEAN

## 1.1. Arlo politikoan



### EGUNGO EGOERA

Emakumeen eta gizonen presentzia Udalean ordezkaritza duten alderdi politikoetan

ALDERDI POLITIKOAK	KIDEAK GUZTIRA	Emakumeak		Gizonak	
		Kopurua	%	Kopurua	%
PSE-EE	8	2	25	6	75
EAE-ANV	6	2	33	4	67
EAJ-PNV	2	1	50	1	50
EB-ARALAR	2	-	0	2	100
PP	2	2	100	-	0
EA	1	-		1	100

Iturria: Errenteriako Udala, 2007

### BALORAZIOA / PERTZEPZIOA

- Udalean ordezkaritza duten sei alderdietatik bik besterik ez dute bermatzen emakumeen presentzia orekatua, PPK eta EAJk hain zuzen; nahiz eta denek bete duten Berdintasunaren Legea azken udal-hauteskundeetako hautetsien zerrendak aurkezteko orduan.
- Zehazki, PPK bi ordezkari ditu, biak emakumeak.



# 1. AUKERA-BERDINTASUNA UDALEAN

## 1.2. Arlo teknikoan



EGUNGO EGOERA					
Emakumeen eta gizonen presentzia udaleko sailetan					
LAN-ESPARRUAK	GUZTIRA	Emakumeak		Gizonak	
		Kop.	%	Kop.	%
Alkatetza eta talde politikoak	6	3	3,5	3	1,8
Antolaketa eta Barne Erregimena	27	15	17,6	12	7,3
Ogasuna eta Garapen Ekonomikoa	17	12	14,1	5	3,0
Kultura, Hezkuntza, Gazteria eta Euskara	26	15	17,6	11	6,7
Hirigintza, Azpiegiturak, Zerbitzuak eta Ingurumena	82	20	23,5	62	37,8
Gizarte Zerbitzuak	19	15	17,6	4	2,4
Zirkulazioa, Garraioak eta Herritarren Segurtasuna	72	5	5,9	67	40,9
<b>GUZTIRA</b>	<b>249</b>	<b>85</b>	<b>100,0</b>	<b>164</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Errenteriako Udala, 2007

### BALORAZIOA / PERTZEPZIOA

- Udaleko lanpostuei dagokienez, 10etik 6 lanpostu gizonak betetzen dituzte.
- Emakumeen eta gizonen sailkako banaketari dagokionez, emakumeen presentzia gizonena baino askoz ere orekatuagoa da. Izan ere, gizonekoak bi sailetan daude batez ere: batetik, Hirigintza, Azpiegiturak, Zerbitzuak eta Ingurumena Sailean; eta, bestetik, Zirkulazioa, Garraioak eta Herritarren Segurtasun Sailean.
- Bestalde, Udaleko zenbait lanbide sexuaren arabera nabarmen bereizita daude, hala nola:
  - 67 udaltzainetatik, 2 besterik ez dira emakumeak.
  - Gizarte-laguntzaile guztiak emakumeak dira.
  - Garbitzaile guztiak emakumeak dira.
  - 36 pertsonak egiten dute lan Elektrizitatea, Urak, Obrak, Brigada eta Lorezaintza Sailean, eta denak gizonak dira.
  - Hirigintzako 14 teknikariren artean emakume bakarra dago, aparejadore-lanetan.



# 1. AUKERA-BERDINTASUNA UDALEAN

## 1.2. Arlo teknikoan



EGUNGO EGOERA						
Emakumeen eta gizonen presentzia kategoriaren arabera						
Kategoriak	Pertsonak GUZTIRA	Emakumeak		Gizonak		GUZTIRA
		Kopurua	%	Kopurua	%	
A	14	2	14,3	12	85,7	100,0
B	26	16	61,5	10	38,5	100,0
C	43	26	60,5	17	39,5	100,0
D	122	23	18,8	99	81,1	100,0
E	36	15	41,7	21	58,3	100,0
Zehazteke	8	3	3,5	5	3,0	100,0
Lanpostuak hutsik	30					100,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>249</b>	<b>85</b>	<b>34,1</b>	<b>164</b>	<b>65,9</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Errenteriako Udala, 2007

### BALORAZIOA / PERTZEPZIOA

- Kategoriari erreparatuz gero, kategoriarik baxuenetan (D eta E) eta altuenean (A), gizonak dira nagusi. Erdiko bi kategorietan (B eta C), ordea, emakumeak nabarmentzen dira.
- Gizonak bi kategoriatan nabarmentzen dira: D kategorian eta An. Izan ere, D lanpostu gehien dituen kategoria da, baina A kategorian, ordea, 14 lanpostu besterik ez daude.



# 1. AUKERA-BERDINTASUNA UDALLEAN

## 1.2. Arlo teknikoan



EGUNGO EGOERA	BALORAZIOA / PERTZEPZIOA
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Emakumearen edo Berdintasun Sailik ez da existitzen, eta orain arte ez da egon zehazki arlo honetan jardun duen langilerik edo teknikaririk ere.</li> <li>• 2007an Berdintasun Plana abiatzea onartu eta martxan jarri da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hainbat sailetatik egiten den lanari dagokionez, oro har:</li> <li>• Datuak ez dira sexuaren arabera bereizten. Ondorioz, zailtasunak daude genero-ikuspegia kontuan hartzen duten hausnarketak egiteko edota politikak diseinatu eta garatzeko. <ul style="list-style-type: none"> <li>– Ez da egin ez hausnarketarik ez ebaluaziorik genero-ikuspegia kontuan hartzearen edo ez hartzearen inguruan.</li> <li>– Ez dago irizpide komunik hizkuntzaren erabileraren inguruan, komunikazio orokorrean eta, zehazki, herritarrei zuzendutakoan.</li> </ul> </li> <li>• Elkarrizketatutako udal-langileek positiboki baloratu dute Plana martxan jarri izana eta babestu ere egiten dute. Horretarako, alderdi hauek lantzeko beharra ikusten da: <ul style="list-style-type: none"> <li>– Ordezkaritza politikoen babesa.</li> <li>– Diagnostiko batetik abiatzea eta etorkizunean egin beharreko lana zehazteko diagnostikoan oinarritzea. Diagnostikoak benetako behar eta interesetan oinarritu behar du; horretarako, arlo bakoitzeko eragileekin eta pertsonekin lan eginez.</li> <li>– Helburuen arabera lan egitea, pauso txikiak emanez eta egindako lana ebaluatuz.</li> <li>– Zeharkako gaia den heinean, beharrezkoak dira sailen arteko elkarlana bermatzeko neurriak.</li> <li>– Diagnostikoaren eta diseinuaren faseez baliatzea sentsibilizazioa lantzeko.</li> </ul> </li> </ul>



# 1. AUKERA-BERDINTASUNA UDALEAN

## 1.3. Ondorioak



### ONDORIOAK

- Emakumeen presentzia murrizta da udal-gobernuan.
- **Udaleko ordezkari politiko**en herena emakumeak dira.
  - **Gobernu-batzordea** osatzen duten 8 pertsonetatik 2 emakumeak dira.
  - **Udalean ordezkaritza politikoa** duten 6 alderdi politikoetatik bitan dira emakumeak % 50a edo gehiago.
  - 4 **patronatu edo kontseiluetatik** 1ek du emakume bat lehendakari.
  - **Informazio-batzordeak** 13 dira, eta horietatik 3tan emakumeak dira arduradun.
- **Udaleko-langileei** dagokienez:
  - 10 udal langileetatik **6 gizonak** dira.
  - **Sexuaren arabera nabarmen bereizitako lanpostuak** daude: esaterako, Hirigintzako teknikariak eta Gizarte Zerbitzuetakoak edota Udaltzaingokoak.
  - Kategoriei dagokienez, aipagarria da gizonen ia erabateko presentzia kategoria gorenean (An).
- Ez dago **emakumearen edo berdintasunaren sailik**, ezta zehazki lan honetan jardun duen teknikaririk ere, orain arte behintzat.



# 1. AUKERA-BERDINTASUNA UDALEAN

## 1.3. Ondorioak



### ONDORIOAK

- Sailetan egiten den lanean, oro har:
  - Ez da **sexuaren arabera berezitako datuekin** lan egiten, eta horrek nabarmen zailtzen du genero-ikuspegia kontuan hartzea hausnarketak egiterakoan edota politikak diseinatu edo garatzerakoan.
  - Ez da **inolako hausnarketarik edo ebaluaziorik** egin genero-ikuspegia txertatzearen beharraz.
  - Ez dago irizpide komunik hizkuntzaren erabileraren inguruan, komunikazio orokorraren inguruan eta, zehazki, herritarrei zuzendutakoaren inguruan.
- Elkarrizketatutako udal-langileek positiboki baloratzen dute **Berdintasun Plana** martxan jarri izana, eta babestu egiten dute.





## 2. AUKERA-BERDINTASUNA UDALERRIAN

### 2.1. Kultura



#### 2.1.1. Udalak garatutako ekintza nagusiak

EGUNGO EGOERA	BALORAZIOA / PERTZEPZIOA
<ul style="list-style-type: none"><li>• Hauek dira nagusiki Udalak kultur arloan garatzen dituen ekintzak:<ul style="list-style-type: none"><li>▪ Kultur ekipamenduak kudeatzea (Niessen kulturgunea, Xenpelar, liburutegia, etab.).</li><li>▪ Kultur jardunaldiak antolatzea edota hauen antolaketan parte-hartzea (inauteriak, erregeen desfilea, etab.) herriko elkarteekin batera.</li><li>▪ Errenteriako kultur elkarteei bideratutako diru-laguntzak kudeatzea.</li></ul></li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>▪ Udalak antolatutako ekintzetan parte-hartzea neurtu egiten da (antolaketa prozesuan zehar izandakoa eta ekintza bera gauzatzekoan), baina ez da emakumeen parte-hartzearen inguruko hausnarketarik egin.</li><li>▪ Irizpide berriak onartu dira herriko kultur elkarteei bideratutako 2008ko diru-laguntzetan, Berdintasun Legeari jarraituz: aurkezten diren programetan emakumeen parte-hartzea edo berdintasuna kontuan hartzen den baloratuko da irizpide gisa, baita berdintasuna bultzatzeko moduak ere.</li></ul>



## 2 .AUKERA-BERDINTASUNA UDALERRIAN

### 2.1. Kultura

#### 2.1.2. Azpiegiturak eta hauen balorazioa



#### Herriko kultur ekipamenduak eta jardueraren deskribapena

<b>Errenteriako Kultur Gunea</b>	Auditorium-a, entsegu-gelak, bideo- eta irrati- tailerrak, eta abar. Besteak beste, ondorengo ekintzak ematen dira: irakaskuntza (dantza, irratia, bideoa, antzerkia, eszenatokiaren argiteria eta abar), produkzio eszenografiko saiakeren programazioa eta antzezlanak, musika, bertsolariak eta abar.
<b>Udal-kontserbatorioa</b>	Araututako lanbide-heziketa zentroa, HSAOLko (LOGSE) ikasketa-plan berriaren barruan, eta 2 kurtso akademikoko 3 ziklo eskaintzen dituena eta urte beteko iraupenarekin. Espezialitateak honakoak dira: instrumental sinfonikoa, autoktonoa eta polifonikoa.
<b>Eresbil</b>	Konpositore euskaldunen artxibategia.
<b>Udal-liburutegia</b>	Zerbitzu nagusiak Magdalena kaleko eraikinean daude, nahiz eta haur-liburutegia Xenpelar eraikinaren azken solairuan egon.
<b>Xenpelar Etxea</b>	Erakusketa-aretoa, konferentzia-aretoa eta haur-liburutegia.
<b>Xenpelar Arte Plastikoko Tailerra</b>	Besteak beste, kurtsoak: argazkilaritza, enkuadernaketa artistikoa, altzarien berrikuntza eta dekorazioa, zeramikaren eraldaketa eta dekorazioa, beira, zura tailatzea eta patchworka.
<b>Reina Aretoa</b>	Konferentzia-aretoa
<b>Trakets Aisialdiko Eskola</b>	Kurtsoak ematen dira aisialdiko monitore eta zuzendarientzat, beste kurtso monografikoez gain. Gazte-lokalak ludoteka-zerbitzuak eskaintzeko ere erabiltzen dira. Guztira 5 dira, Gabierrota, Kaputxinos, Agustinak eta Beraun auzoetan banatuak. Gainera, Alabergan, ludoteka bat dago.
<b>Oarso hiri-zentroa</b>	Hautzaindegia, ludoteka, gazteak informatzeko bulegoa, norbere kontsultarako gela, asoziazioentzako bilera-gela, Andra Mari Koroarentzako instalazioak.

Iturria: Errenteriako Udala, 2007



## 2 .AUKERA-BERDINTASUNA UDALERRIAN

### 2.1. Kultura

#### 2.1.2. Azpiegiturak eta hauen balorazioa



#### BALORAZIOA / PERTZEPZIOA

- Orokorrean, garatzen den kultur politika eta dauden azpiegiturei dagokienez, ondorengo aspektuak azpimarratzen dira hobetzeko aspektuak bezala:
  - “Defizit 0” irizpidearekin funtzionatzea, politika kultural batekin funtzionatu beharrean.
  - Asoziazioetako udal-ekintzekin bat datorren programazio kultural egokiagoa izatea, oinarriko kultura sustatzera begira (adibidez, dohaineko programazioaren bidez, maiztasun batekin...).
  - Kultur aktibitateak eragingo dituen azpiegiturak sortzea. Adibidez, Niessen kultur zentroak daraman kudeaketa-mota (pribatua) udalerriko asoziazioen ekintzak loratzea eragozten duela pentsatzen da.
  - Sortutako azpiegiturak ez diete beti aurretik aztertutako beharrei erantzuten.



## 2 .AUKERA-BERDINTASUNA UDALERRIAN

### 2.1. Kultura

#### 2.1.3. Asoziazio munduan parte-hartzea



EGUNGO EGOERA	BALORAZIOA /PERTZEPZIOA
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Asoziazio soziokultural ugari dago Udalerrian. Eremu honetan dago asoziazio gehien, kirolekoen ondoren.</li> <li>• Ekimen pribatua eta asoziazio-mugimendua, orokorrean, aktiboak kontsideratzen dira; nahiz eta asoziazionismoaren beherakada ematen ari den, ondorengo belaunaldien errelebo falta igarri baita. <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ 2002an emakumezkoen parte-hartzea asoziazio munduan, orokorrean, %25ekoa zen. Beraz, momentu horietan 4 emakumetatik 1ek parte hartzen zuen era bateko edo besteko asoziazio batean. Horietatik, %22k asoziazio soziokulturaletan parte hartzen zuten (Iturria: Emakumeen egoeraren ikerketa soziologikoa Erreterian, 2003).</li> <li>▪ Kultur arloko asoziazioen zuzendaritza, nagusiki, gizonezkoen osatuta dago eta erreferentziazko figurak maskulinoak dira.</li> </ul> </li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kualitatiboki, emakumearen parte-hartzea asoziazio kulturalen munduan altua dela ere jasotzen da. Salbuespenak elkarte gastronomikoak dira, horietako batzuetan parte-hartzea leku batzuetan murriztuta daukate.</li> <li>• Aisialdirako asoziazioetan emakumeen presentzia sendoa da, euren organizazio nahiz aurrera eramaten dituzten aktibitateetan. <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ikus daiteke Udalarekin batera antolatutako ekintzetan emakumezkoak direla partaide gehienak, baina bakarrik ekintzen heren batean bakarrik dira buru.</li> <li>▪ Emakumezkoen edo gizonezkoen bereziki lotutako diziplina kulturalak egoteak desorekak sortzen ditu asoziazioetan, nagusiki maskulinoak edo /eta femeninoak diren asoziazioen eraketa bultzatuz.</li> <li>▪ Ez dira landu orain arte sexu batekin ala bestearekin lotutako aktibitateak bereizteko sensibilizazio-saioak.</li> </ul> </li> </ul>



## 2 .AUKERA-BERDINTASUNA UDALERRIAN

### 2.1. Kultura

#### 2.1.4. Ondorioak



#### ONDORIOAK

- Udalerriko asoziazio kulturelei zuzendutako 2008ko **diru-laguntzen esleipenaren** deialdian, irizpide berriak onartu dira Berdintasun Legea egokituz, zeinak genero-berdintasunaren inguruko irizpideak jasotzen dituen.
- Ikus daiteke Udalerrian **antolatzen diren aktibitate** kulturaletan, batzuk Udalarekin elkarlanean, orokorrean **nagusiki emakumeak parte-hartzen** dute; dena dela, **ez dira izaten horien buru**. Asoziazioetako zuzendaritzetan gizonezkoak daude eta erreferentziazko pertsonak maskulinoak dira.
- Asoziazio-munduan emakumeen parte-hartzea sendoa dela pentsatzen da, **eurak lideratutako aktibitateak daude** (aisialdiko elkarteak adibidez). Dena den, asoziazio batzuetan emakumeen parte-hartzea murriztuta dago (gastronomiako hainbat elkartetan).
- Emakumeari oso lotutako ekintza kulturalak daude; beste batzuk, berriz, gizonari lotuta. Horrek **desorekak** sortzen ditu asoziazioetan, asoziazio maskulino edo/eta femeninoak. Gaur egun arte, ez dira landu sexu bati ala besteari lotutako aktibitateak bereizteko sentsibilizazio-saioak.



## 2 .AUKERA-BERDINTASUNA UDALERRIAN

### 2.2. Kirola



#### 2.2.1. Aktibitateak eta instalazio nagusiak

EGUNGO EGOERA	BALORAZIOA / PERTZEPZIOA
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kirol Patronatuak 3 lan arlo nagusi dauzka dauden kirol instalazioak kontuan izanda: <ul style="list-style-type: none"> <li>– kirol federatua</li> <li>– eskola-kirola</li> <li>– biztanleria osoari zuzendutako kirola</li> </ul> </li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Orokorrean dauden azpiegituren artean, batez ere futbol eta futbitora zuzendutakoak nabarmentzen dira, kirol-praktika maskulinora lotzen den kirola.</li> </ul>

Kirol-instalazioak	Hornikuntzak
Pontika kirol-eremua	Frontoia eta futbito-zelaia
Beraun kirol-eremua	Futbol -elaia, atletismoko pista eta Berauneko frontoia
Gabierrota kirol-eremua	Futbol eta saskibaloiko zelaia
Fanderia kirol-eremua	Futbol-zelaia
Fanderia udal-kiroldegia	Igerilekua
Fanderia udal-frontoia	Frontoia, Hidroterapia, Gimnasioa.
Kaputxinos kirol-eremua	Udako Igerileku Irekia
Galtzaraborda udal-kiroldegia	Kirol-anitza pista, igerilekua, squasheko hiru pista, sauna eta lurrun-bainua, bihotz-hodietako aretoa, muskulazio-aretoa, gimnasioa.

Iturria: Errenteriako Udala, 2007



## 2 .AUKERA-BERDINTASUNA UDALERRIAN

### 2.2. Kirola

#### 2.2.2. Kirol federatua



EGUNGO EGOERA	BALORAZTOA / PERTZEPZTOA
<ul style="list-style-type: none"><li>• Kirol-elkarte gehienek talde maskulinoak dituzte eta batzuk femeninoak ere bai (Touring, Beti Ona, Ibaika, Ereintza...).</li><li>• Udalerriko kirol-elkarteetako zuzendaritzak, nagusiki, gizonezkoen osatuta daude.</li><li>• Udalerriko kirol-kluben bitartez ematen dira. Arlo honetan diru-laguntzak eskaintzen dira.</li><li>• Udalak klubentzat ematen dituen diru-laguntzetan, pertsona federatuen artean dagoen emakume-kopurua hartzen du kontuan.</li><li>• Hala ere, ez dira beste aspektu batzuk kontuan hartzen, adibidez, zuzendaritzan parte hartzen duen emakume-kopurua.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Kirol femeninoa, orokorrean, adin batetik aurrera desagertu egiten da (jubenilak). Gizonezkoetan, ordea, kirola egiten jarraitzeko aukera dago.</li><li>• Asoziazioak zalantzan jartzen dute emakume-kopurua kontuan hartzea diru-laguntza emateko orduan klubei. Euren esperientziaren arabera, diru-laguntza pertsona federatuen adinaren arabera ematen dela uste dute.</li><li>• Kirol klubuen egitura, orokorrean, oso ahula da, errekurso gutxi daude eta bolondres bezala eskaintako lanean oinarritzen dira. Beraz, zaila da irizpideak ezartzea horien osaketarako, esaterako, emakumeen presentziari dagokionez.</li></ul>



## 2 .AUKERA-BERDINTASUNA UDALERRIAN

### 2.2. Kirola

#### 2.2.2. Eskola-kirola



EGUNGO EGOERA	BALORAZIOA / PERTZEPZIOA
<ul style="list-style-type: none"><li>• Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiak kirola sustatzeko duen programan parte hartzen du, eskualde-mailan koordinatuta egonik. Aktibitateak antolatzen dira Udalerriko ikastetxeekin.</li><li>•Ikasleek kirol anitz ezagutu eta jarduteko aukera dute: futbola, saskibaloia eta eskubaloia, nagusiki, baina baita beste kirol batzuk ere, judo, igeriketa eta atletismoa besteak beste.</li><li>•Neurri anitz hartzen dira lehiakortasuna kirolean ekiditeko eta gozamina sustatzeko:<ul style="list-style-type: none"><li>– udal-azpiegiturak erabiltzen dira (eta ez ikastetxeetakoak),</li><li>– ez dago klasifikaziorik,</li><li>– eta ikasle-partaide guztiek kamiseta berdina erabiltzen dute.</li></ul></li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Kirol-agenteeek era positiboan baloratzen dute ekimena, bultzatzen diren balioengatik.</li><li>•Nagusitzen diren kirol-modalitateak azpimarratzen dira, adibidez, futbola, saskibaloia eta eskubaloia; hau da, figura maskulinoari oso lotuta dauden aktibitateetan.</li></ul>





## 2 .AUKERA-BERDINTASUNA UDALERRIAN

### 2.2. Kirola

#### 2.2.4. Biztanleria osoari zuzendutako kirola



EGUNGO EGOERA	BALORAZTOA / PERTZEPZTOA
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bi eratako aktibitateak antolatzen dira nagusiki: ikastaroak eta txapelketak eta herri-probak.</li> <li>• Hauetariko aktibitate batzuk berezko kirol-instalazioetan antolatzen dira (kiroldegietan kurtsoak, “superatleta” eta abar).</li> <li>• Beste batzuk kanpoan antolatzen dira (San Silvestre Lasterketa, futbol-txapelketa,...).</li> <li>• Orokorrean, antolatzen diren kirolak mistoak dira.</li> <li>• Kiroldegietako kurtsoen eskaintza egun osoan zehar ematen da eta goizetako kurtsoetan emakumezkoak nagusitzen dira.</li> <li>• Kiroldegien bitartez kurtsoak ematen dituzten pertsonen %60 emakumezkoa da.</li> <li>• Ez dago jasota emakumeei bereziki zuzendutako kirol-aktibitateak eskatu direla.</li> <li>• Udaletik edo Patronatutik inoiz ez dira egin sexu bakoitzak bereganatuta dituen zenbait kirolenganako aurreiritziak hausteko kanpainak. Gaiaren gaineko gogoeta ere ez da egin.</li> <li>• Ez dira neurriak hartu komunikabideetan kirol-elkartetako bazkide den emakumearen agerpena handiagotzeko eta ez da horren gaineko gogoetarik egin.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kiroldegiko eskaintzan, pertsona erabiltzaileen datuak jasotzen dira, baina ez dira sexuaren inguruko datuak jasotzen; beraz, ez dago sexuaren araberrako partaidetzaren gaineko gogoetarik.</li> <li>• Kurtsoen eskaintzan, batez ere emakumeek parte hartzen duten sentazioa dago. Nahiz eta eskaintzen diren kurtsoak mistoak izan, badaude batzuk emakumezkoentzat bereziki erakargarriak (yoga, aerobik, gimnasia erritmikoa...). Beste kurtso batzuk beste izaera mistoagoa dute (spinning, igeriketa...).</li> <li>• Emakume eta gizonaren partaidetza aktibitatearen motaren araberrakoa da. Kurtsoetan (taldeko kirola, ez lehiakorra) emakumezkoek parte hartzen dute gehiago; gizonezkoak, berriz, txapelketetan eta herri-probetan (banakako kirol lehiakorra) famatuagoak dira. Emakumeen partaidetza era honetako probetan nulua edo ia nulua da.</li> <li>• Kiroldegien bitartez kurtsoak ematen dituzten pertsonen %60 emakumezkoak direla jakin arren, ez daude datuak sexuaren araberrakoa nola banatzen diren ikusteko (zein modalitate lantzen duten). Horren inguruan lan egin daitekeen faktore bat kontsideratzen da, erabiltzaileen erabakian eragina izan baitezake.</li> </ul>



#### ONDORIOAK

- Dauden udaleko kirol-instalazioan artean, futbol eta futbitora zuzentzen diren azpiegiturak nagusitzen dira batez ere, kirol-praktika maskulinora zuzendutako kirolak.
- Udalak klubei ematen dien diru-laguntzetan, kontuan hartzen da pertsona federatuen artean dauden emakume-kopurua.
- Dena den, beste faktore batzuk ez dira kontuan hartzen, adibidez, klub bakoitzean zenbat emakumek hartzen duten parte zuzendaritzan. Bestalde, ikus daiteke kirol-kluben egiturak oso ahulak direla, errekurtsio gutxi dituztela eta lan bolondresean oinarritzen direla.
- Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiak eskola-kirola sustatzeko duen programan parte hartzen du, eskualde-mailan koordinatuta egonik. Orokorrean, era positiboan baloratzen da ekimena, bultzatzen diren balioengatik.
- Biztanleriari orokorrean zuzendutako kirol-eskaintza irekian, ikus daiteke emakume eta gizonen partaidetza aldakorra dela kirol-motaren arabera. Kiroldegietan eskaintzen diren kurtsoetan adibidez (taldeko kirola, ez lehiakorra) emakumeak dira partaide nagusiki; txapelketa eta herri-probetan (banakako kirol lehiakorra), berriz, gizonezkoak nagusitzen dira. Emakumeen partaidetza era honetako probetan nulua da edo ia nulua.
- Udaletik edo Patronatutik inoiz ez dira egin sexu bakoitzak bereganatuta dituen zenbait kirolenganako aurreiritziak hausteko kanpainak (pilota – maskulinoa, dantza – femeninoa...). Gaiaren gaineko gogoeta ere ez da egin, ezta sexuetan banatutako analisia ere.
- Udaletik edo Patronatutik ez dira neurriak hartu komunikabideetan kirol-elkartetako bazkide den emakumearen agerpena handiagotzeko eta ez da horren gaineko gogoetarik egin.



## 2 .AUKERA-BERDINTASUNA UDALERRIAN

### 2.3. Lana eta enplegua

#### 2.3.1. Enplegua eta aktibitate femeninoaren inguruko datuak



#### EGUNGO EGOERA

EAE	Jarduera-tasa %	Langabezia-tasa %
Guztira	56,7	9,2
Gizonak	68,0	7,2
Emakumeak	46,1	11,9

Iturria: INEM, 2005

- Datu orokorragoen patroiarri jarraituz, eskualdeko eta Errenteriako emakumeak gizonek baino langabezia-tasa altuagoa daukate. Errenteriako langabetuen %59 emakumezkoa da. Euren jarduera-tasa ere baxuagoa da, hau da, lan-merkatuan parte hartzen duten eta lan bila dauden emakumeen ehunekoa gizonena baino txikiagoa da.
- Ez-aktibo dauden emakume horiek mobilizatzeko, *Zirkinka* programa jarri zen martxan duela hiru urte ("Fondo de Formación"ekoa), ez-aktibitate egoeran aurkitzen diren eta arrazoi ezberdinengatik lan-merkatura sartzeko arazoak dituzten pertsonen zuzendua, batez ere, emakumeei. Klean bertan jartzen dira harremanetan programan parte har lezaketenekin.
- Faktore asko daude errealitate honetan eragina dutenak, baina badaude batzuk erabakigarriagoak; horien artean, familia-kargak, guraso bakarreko ama izatea edo etorkina izatea. Udalerrian dauden 1.572 guraso bakarreko familietatik, adibidez, 1.322tan (%84) emakumeak dira buru.



## 2 .AUKERA-BERDINTASUNA UDALERRIAN

### 2.3. Lana eta enplegua

#### 2.3.2. Oarsoaldearen bitartez, lan munduratzeko errekurtsioak



#### EGUNGO EGOERA

- Oarsoaldea Garapen Agentziak, Erreterian dituen instalazioen bitartez, lana bilatzera zuzendutako hainbat zerbitzu eskaintzen ditu:
  - Lan-orientabidea
  - Lan-eskaintzen kudeaketa.
  - Etengabeko formazioa aktibo dauden pertsonentzat.
  - Aholkularitza-zerbitzua eskaintzen da norbere enpresa sortu nahi duenarentzat.
- Lan-orientabidean, enplegarritasun-perfilaren arabera, hainbat errekurtsio daude, besteak beste:
  - Lanerako prestakuntzako bi lantegi
  - Auzolan programa, bazterketa-arriskuan dauden pertsonentzako formazio-/enplegu-programa mistoa.
  - Guraso bakarreko familietako amentzako gizarteratze-enpresa bat.
  - Gizarte-onurarako enplegu-/formazio-programak.
- 2006an hartutako pertsona guztietatik, %49 emakumezkoak izan ziren (Oarsoaldeako datuen arabera), nahiz eta etengabeko formazioan eta beste errekurtsioen erabileran presentzia txikiagoa izan. Euren enpresa sortzeko aholkularitza-zerbitzuan parte hartu zuten emakumeak %43 izan ziren 2006an.
- Etengabeko formazioan, emakume eta gizonezkoen partaidetza sektorearen arabera da. Metala nahiz soldadura bezalako sektoreetan, nagusiki gizonek hartzen dute parte. Zerbitzuetan, esaterako, emakumeak dira nagusi.
- Emakumeen parte-hartze handiagoa sustatzeko, Oarsoaldeak eskaintzen dituen programetan ekimenak garatu dira, adibidez, Haurren Txokoa haurtzaindegi-zerbitzua.
- Erabiltzaileen datuak jasotzerakoan, orokorrean, aldagai moduan sexua jasotzen da eta egiten diren gogoetetan kontuan hartzen da, baita ondoren hartuko diren neurri zehatzetan ere.



## 2 .AUKERA-BERDINTASUNA UDALERRIAN

### 2.3. Lana eta enplegua

#### 2.3.2. Oarsoaldearen bitartez, lan-munduratzeko errekurtsioak



EGUNGO EGOERA	BALORAZIOA / PERTZEPZIOA
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bereziki, eskaintzen den zerbitzuaren arrakasta-maila lan-merkaturatzea lortzen duen pertsona-kantitatearen arabera neurtzen da. Orain arte ez dira datuak banandu, baina beharra ikusi da eta horretarako tresna batean lanean ari dira.</li> <li>• Oarsoaldeak parte-hartze femeninoa sustatzeko eskaintzen dituen zerbitzuen artean, Haurren Txokoaren zerbitzua nabarmentzen da, Aldundiaren “Canguros” zerbitzua osatzen duena. Formazio-programari esker, asistentzia-zerbitzurako kontratatu diren 8 pertsona formatu dira. Oarsoaldearekin zerbitzu honetan dauden pertsonak bertan utz ditzakete euren seme-alabak. Txikienen zaintzarako hezitzailea euren etxeetara bertaratzea nahiz desplazamenduetan laguntzea ere eskaintzen da. Zerbitzu hau 45 familiak erabili dute.</li> <li>• Oarsoaldea lantzen ari den beste proiektu batzuk: <ul style="list-style-type: none"> <li>– Eusko Jaurlaritzarekin batera, tresna bat garatzen ari dira, kurrikulumean lan-erreproduktiboan bereganatutako trebetasunak jasotzeko. Horri ezkutuko kurrikuluma deritzo.</li> </ul> </li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Datuak ez izan arren, uste da arrakasta-ehunekoa, hau da, lan-munduratzeko lortzen duten emakumeen ehunekoa, gizonena baino txikiagoa dela.</li> <li>• Haurren Txokoa lan-munduratzeko ari diren emakumeentzako tresna oso baliagarria dela uste da. Baina, behin merkaturatutakoan, ezin izango dute zerbitzu hau eskuratu. Bestalde, zerbitzu honen erabilera, hasieran uste baino txikiagoa izan da. Emakumeen beharrak era askotakoak eta aldakorak izan daitezkeela pentsatzen da eta horregatik, hartutako neurriak izaera dinamikoak daukate. Ekimen hauen arrakasta ez da automatikoa; denbora eta sentsibiltatea faktore garrantzitsuak dira.</li> </ul>



## 2 .AUKERA-BERDINTASUNA UDALERRIAN

### 2.3. Lana eta enplegua

#### 2.3.3. Beste entitateen bitartez, lan munduratzeko errekurtoak



EGUNGO EGOERA	BALORAZTOA / PERTZEPZTOA
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Oarsoaldeak egindako lanaz gain, badaude beste entitate batzuk lan-munduratzearen inguruan lan egiten dutenak orientazioa eta lanerako formazioaren bidez: INEM, Cáritaseko Sarea Fundazioa, lantegi-eskola (udal-kudeaketa), Fondo de Formación eta abar. Horietariko batzuk berriazko kolektiboekin lan egiten dute edo berriazko programak dituzte gizarte-bazterketarako arriskua duten pertsonei zuzenduak; 16 eta 25 urte bitarteko gazteak, emakumeak, eta abar.</li> <li>• Entitate horietan guztietan, etorkinekin lan kantitate handitzen ari da, baina ez dago horiei zuzendutako programa berezirik.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lanbide-hezkuntzako kurtsoetan, sexua faktore erabakigarria da. Tradizionalki, emakumeei lotuta egon diren lanbideetan (ile-apaindegia, geriatría...) partaidetza ia guztiz emakumezkoena da; gizonezkoei lotutako lanbideetan (galdaragintza, soldadura...), aldiz, nagusiki partaidetza gizonezkoena da.</li> <li>• Genero maskulinoari lotutako lanbideetan formatu diren emakumeen kasuan, lan-merkaturatzea zailtasunaz betea izan dela ageri da. Ez kontratatzeko, hainbat argumentu erabiltzen dira, adibidez, aldagelekin sor daitezkeen arazoak.</li> <li>• Programa hauek, asko europar fondoetatik eratorritakoak, bereziki lan-bilaketara zuzenduta daude eta horrek eragiten du fondo horiek zuzenduak egotea tradizionalki femeninoak kontsideratzen diren sektoreetara nagusiki eta emakumeen merkaturatzea errazagoa den lekuetara.</li> <li>• Entitate hauek baloratzen dute gaur egunera arte ez dela sentsibilizaziorik egin (ez enpresaburuei, ezta soldatapeko langileriarri ere) formazioa eta lana sustatzeko, beste sexuak tradizionalki okupatutako arloetan.</li> </ul>





## 2 .AUKERA-BERDINTASUNA UDALERRIAN

### 2.3. Lana eta enplegua

#### 2.3.4. Ondorioak



#### ONDORIOAK

- Emakumeen **langabezia-tasa altuagoa** de gizonena baino. Eta euren **jarduera-tasa** (soldatapeko enpleguan parte hartzen dutenak edo bilatzen ari direnak) **txikiagoa** da.
- Emakumeen **lan-merkaturatzea eragozten duten faktore gehigarriak** badaude: karga familiarrak dira horietako bat. Udalerrian dauden guraso bakarreko 1.572 **familietatik**, 1.322 familia (%84) **emakumeen esku** daude. **Etorkina izatea** beste faktore gehigarri bat da. Gero eta eragin handiagoa daukate etorkinek gizarteratzeko orientazio-zerbitzuetan.
- **Oarsoaldea** Garapen Agentziak, Erreterian dituen instalazioei esker, **lana bilatzera zuzendutako zerbitzuak eskaintzen** ditu eta, enplegarritasun mailaren arabera, errekurtso batzuk daude; guztiak mistoak, emakumearen egoerari bereziki begiratu gabe. 2006an arreta jasotako pertsona guztien artean, **%49 emakumezkoak izan ziren**.
- Nahiz eta Oarsoaldeak hartutako pertsonen erdiak emakumezkoak izan, **emakumeen presentzia txikiagoa da etengabeko formazioan eta beste errekurtsoen erabileran**. Datu zehatzak ez dauden arren, uste da **arrakasta-maila** (lan-merkatuan sartzea lortzen dutenen ehunekoarekin neurtua) **txikiagoa dela emakumeen artean**.
- Oarsoaldeak egindako lanaz gain, badaude beste entitate batzuk lan-munduratzearen inguruan lan egiten dutenak orientazioa eta lanerako formazioaren bidez: INEM, Cáritaseko Sarea Fundazioa, lantegi-eskola (udal-kudeaketa), Fondo de Formación eta abar. Horietariko batzuek berariazko kolektiboekin lan egiten dute edo berariazko programak dituzte gizarte-bazterketarako arriskua duten pertsonen zuzenduak; 16 eta 25 urte bitarteko gazteak, emakumeak eta abar.
- Gizarteratzearen inguruko formazioan, horretara dedikatzen diren entitateak bereziki zaintzen dute **sexu-banaketa eskaintzaren arabera**. Hori oso lotuta dago, zentzu batean, gizonezkoekin lotutako kurtsoetan (elektrizitatea, soldadura...) parte hartzen duten emakumeak oso zaila izatea lan-merkaturatzea.
- Lan-merkatuan aurkitzen diren zailtasun hauek, era berean, lanbide-orientazio programak baldintzatzen dituzte, horiek arrakasta-maila handien lortzen saiatzen diren heinean.



## 2 .AUKERA-BERDINTASUNA UDALERRIAN

### 2.4. Hezkuntza

#### 2.4.1. Udaleko aktibitateak eta ikastetxeak



#### EGUNGO EGOERA

- Hezkuntza-mailan, udaletik egiten den lana, hiru motako aktibitateetara zuzenduta dago:
  - Hezkuntzan erabiltzen diren eraikinen ondasuna eta mantentze-lanak kudeatzea.
  - Eusko Jaurlearitza Hezkuntza Sailari zuzenean ez dagozkion beharrak aztertu eta kudeatzea: eskolatik kanpoko aktibitateak, eskola-porrota, etorkinen eskolaratzea eta abar.
  - Ikastetxeei zuzendutako programa eta aktibitateen antolaketa eta koordinazioa: arte plastikoen tailerra, Zuhaitz Eguna eta abar.
- Ikastetxeei zuzendutako programa eta aktibitateen artean aukera-berdintasunaren ingurukorik ez dago. Ez da horren inguruko gogoetarik egin, ikastetxeetan ere ez da horrelako eskakizunik egin.

Ikastetxeak	
Aldakoenea Eskolaurrea	Langaitz Ikastola LH
Beraun Berri HH-LH	Hijas de la Cruz Ikastetxea*
Cristóbal Gamón LH-DBH	Pío Baroja
Gamón HH-LH	Sagrado Corazón-Telleri Ikastetxea*
Orereta Ikastola*	Koldo Mitxelena Institutua DBH
Koldo Mitxelena-Biteri	Koldo Mitxelena HH-LH
Langaitz Ikastola DBH	Telleri Ikastetxea
Don Bosco Lanbide Ikastetxea	

Iturria: Errenteriako Udala, 2007. \* Zentro pribatuak





## 2 .AUKERA-BERDINTASUNA UDALERRIAN

### 2.4. Hezkuntza



#### 2.4.1. Aktibitateak, ikastetxeak eta biztanleriaren hezkuntza-maila

EGUNGO EGOERA	BALORAZIOA/ PERTZEPZIOA					
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Araututako irakaskuntzan 12 ikastetxe daude, publikoak eta pribatuak. 4.000 plaza inguru daude, haur-hezkuntza, lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza eta lanbide-heziketa kontuan izanda. Hezkuntza unibertsitarioa izan ezik, esan daiteke beste maila guztiak bermatuta daudela.</li> <li>• Irakaskuntza ez arautuan 4 zentro daude: LHIK (Lanbide Hastapenarako Ikastegia), Lantegi Eskola, Udal Kontserbatorioa eta Trakets Aisialdirako Eskola (ixteko zorian).</li> <li>• HHE zentro bat dago (Helduentzako Hezkuntza) Oarsoaldeko 4 udalerriei zerbitzua ematen diena. Azken urteetan, zerbitzu horren eskaera igo egin da, neurri batean, etorkinen etorreraren eraginez.</li> <li>• Udalerrian 4 haurtzaindegi zerbitzu daude, 3 pribatu eta publiko bakarra; beraz eskaintza pribatua handiagoa da. 2008-2009an haurtzaindegi berri bat irekitzea espero da 21 plazakoa. Gaur egungo eskaintzak ez du eskaria betetzen, beraz eskaintza publikoa zozketaz banatzen da.</li> </ul> <table border="1" data-bbox="853 884 1496 1182"> <thead> <tr> <th data-bbox="853 884 1496 954">Haurtzaindegiak udalerrian</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td data-bbox="853 954 1496 1008">Uztargi Udal Haurtzaindegia</td> </tr> <tr> <td data-bbox="853 1008 1496 1062">Orereta Txiki Haurtzaindegia (pribatua)</td> </tr> <tr> <td data-bbox="853 1062 1496 1117">Panpin Haurtzaindegia (pribatua)</td> </tr> <tr> <td data-bbox="853 1117 1496 1182">Hijas de la Cruz Haurtzaindegia (pribatua)</td> </tr> </tbody> </table> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Izaera ludikoago batekin, baina hezkuntzara nahiko lotuta, ludoteka eta gazte-lekuen eskaintza ere badago; horretan balioen transmisioa lantzen da.</li> </ul>	Haurtzaindegiak udalerrian	Uztargi Udal Haurtzaindegia	Orereta Txiki Haurtzaindegia (pribatua)	Panpin Haurtzaindegia (pribatua)	Hijas de la Cruz Haurtzaindegia (pribatua)	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikus daiteke haurtzaindegien eskaintzak ez duela eskaera asetzen; hori oso lotuta dago lan-bizitza eta bizitza pertsonalaren berdinkatzearekin.</li> <li>• Gizonen eta emakumeen presentzia pertsona dinamizatzaileen artean ludoteka eta gazte-lekuetan ez da berdina: emakumeek ludoteketan lan egiten dute eta gizonak gazte-lekuetan. Horrek zerikusi handia dauka balioen transmisioarekin eta, adin tartearan arabera, sexu bateko nahiz besteko pertsona-erreferentziak hartzearekin.</li> </ul>
Haurtzaindegiak udalerrian						
Uztargi Udal Haurtzaindegia						
Orereta Txiki Haurtzaindegia (pribatua)						
Panpin Haurtzaindegia (pribatua)						
Hijas de la Cruz Haurtzaindegia (pribatua)						



## 2 .AUKERA-BERDINTASUNA UDALERRIAN

### 2.4. Hezkuntza

#### 2.4.2. Eskola-elkartea



EGUNGO EGOERA	BALORAZIOA /PERTZEPZIOA
<ul style="list-style-type: none"><li>• Irakasleriaren feminizazio handia dago, batez ere lehen hezkuntzan. 2003an, %60 emakumezkoak ziren (<i>Errenteriako emakumeen egoeraren inguruko ikerketaren arabera</i>). Baina irakasleriatik haratago, sexuen araberako lan-banaketa argia dago eskola-elkarteen barnean: esaterako, garbiketa, jangela, administrazio-lanak... gehienak emakumeek egiten dituzte; mantentze-lana, berriz, gizonen ardura da. Dena den, gero eta emakumezko irakasle gehiago dago lanbide-hezkuntzan materia teknikoa ematen.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Gaur egun, ikastetxe guztiak dira mistoak eta horrek hezkidetzan laguntzen du. Baina beste zailtasun batzuk ere ikusten dira, gaur egun klasean errealitate ezberdineko kulturak landu behar baitira.</li><li>• Gurasoek seme-alaben hezkuntzan bakoitzak duen inplikazioari dagokionez, desoreka handia dago, batez ere amaren gain erortzen delako pisu handiena. Zentzu horretan, gurasoen asoziazioetan gehienak amak dira. Nahiz eta arduraren parekotasun handiagoa nabari den bikote gazteetan.</li><li>• Horregatik, ikastetxe gehienek uste dute esfortzu berezia egiten dutela ordutegia malgutzeko, gurasoen errealitateari gehiago egokituz. Zentzu horretan, eurak dira ordua jartzen dutenak zenbait ekintzatarako.</li><li>• Ikasleen arteko erlazioan, erlazioak nahikoa parekatuak direla uste da eta eskola mistoak izateak hori laguntzen du.</li><li>• Ikastetxeetan ikus-entzunezko lengoia eta horrekiko ikuspegi kritikoa ez dela lantzen azpimarratzen da.</li></ul>



ELHUYAR  
aholkularitza

## 2 .AUKERA-BERDINTASUNA UDALERRIAN

### 2.4. Hezkuntza

#### 2.4.2. Eskola-elkartea



EGUNGO EGOERA	BALORAZTIOA / PERTZEPZTIOA
<ul style="list-style-type: none"><li>• Zuzendaritzako hainbat organotan normalizatzen ari da emakumezkoen presentzia, nahiz eta orain arte gizonezkoak nagusitu feminizatutako sektore honetan. 2003ko datuen arabera, nahiz eta irakasleriaren %60 femeninoa izan, zuzendaritzako postu gehienak gizonezkoenak dira (10 zentrotatik 6).</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Eskola eduki gehigarri gairik gaituta dagoela uste da: bide-hezkuntza, hezkuntza sexuala, gatazken ebazpena eta abar, hezkuntza eta balio-transmisioa ikastetxeetan delegatzen delako. Inguru familiarren paper aktiboagoa eskatzen da.</li><li>• Positiboki baloratzen da Udaleko Gizarte Zerbitzuekin koordinatzea abusu-egoerak nahiz tratu txarrak kudeatzeko.</li></ul>



## 2 .AUKERA-BERDINTASUNA UDALERRIAN

### 2.4. Hezkuntza

#### 2.4.3. Ondorioak



#### ONDORIOAK

- **Udalak ikastetxeetara zuzendutako** programa eta aktibitateen artean, **ez dago genero-ikuspegia lantzen duenik** (berdintasuna, ardura partekatzea, genero-indarkeria...). Ez da gogoetarik egin gai honen inguruan, ikastetxeek ez dute eskakizunik ere egin honen inguruan.
- 4 haurtzaindegi daude herrian, baina **ez dute dagoen eskaera asetzen**. 2008-2009 kurtsorako, haurtzaindegi berri baten irekiera espero da, 21 plazarekin. Aspektu hori oso lotuta dago lan-bizitza eta bizitza pertsonalaren berdinkatzearekin.
- Ikastetxeetan, oso garrantzitsua da **egokitutako lanaren araberako pertsonalaren segregazioa**: irakasleria oso feminizatuta dago, batez ere, lehen hezkuntza, garbiketa eta jangelako zaintza dagokio emakumeari, administrazioako pertsonala emakumezkoa da gehiena eta mantentze-lana gizonei dagokie. Modelo hauek ez dute berdintasunaren bidean laguntzen.
- **Emakumearen presentzia eskoletako zuzendaritzetan normalizatzen** ari da. Normalizatzen ari da, halaber, emakumearen presentzia materia teknikoen heziketan.
- Ikasleen arteko **harremanak parekatuak** direla uste da eta eskola mistoak izateak hori lantzea laguntzen du. Baina kultur aniztasuna klasean lantzerakoan gero eta zailtasun gehiago topatzen da.
- Gurasoen **paper garrantzitsua azpimarratzen da balio transmisioan**. Eta ikus daiteke **aiten parte hartzea eskasa** dela eskolari dagokion gaietan. Gurasoen asoziazioak, nagusiki, amez osatuta daude.
- Abusu nahiz tratu txar egoeran daudenei arreta egokia emateko, Udaleko Zerbitzu Sozialekin koordinazio ona dago.



## 2 .AUKERA-BERDINTASUNA UDALERRIAN

### 2.5. Hirigintza eta garraio publikoa

#### 2.5.1. Udalerriaren kudeaketa Hirigintzako departamendutik



EGUNGO EGOERA	BALORAZIOA / PERTZEPZIOA
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udalak egiten duen lana Hirigintzako Saitetik, honakoan oinarritzen da: <ul style="list-style-type: none"> <li>– Espedienteak eta obra-baimenak izapidetu.</li> <li>– Obra publikoen eraikuntzarako proiektuak egin eta kudeatu.</li> </ul> </li> <li>• Sail honetako Udaleko pertsonala maskulinoa da, aparejadore moduan dabilen pertsona izan ezik.</li> <li>• Sailean ez da genero-ikuspegiaren inguruko gogoetarik egin; beraz, eguneroko lanean, ez dute kontuan hartzen ikuspuntu hori.</li> <li>• Lurzoruaren Legeak esaten duenari erantzunez, Udalak Hirigintza gaietarako parte hartzeko foroak jarri ditu martxan.</li> <li>• 2003an, Errenteriako emakume taldeek hiriko guneen inguruko ikerketa bat egin zuten: <i>Emakume Taldeen Auzo Elkarteen diagnostikoa, 2003</i>, hiriko ahulezia eta indarrak deskribatzeko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Biztanleriari eragiten dioten hiriko hainbat arazo auzoko elkarteen bidez kudeatu direla adierazi da, zeinak proposamenak eta erreklamazioak jaso eta Udalera eraman dituzten. Dena den, parte hartzeko mailan ahulduta dauden egiturez hitz egiten ari gara.</li> <li>• Hiriko kudeaketa eta sormenarekin zerikusia duten guneetan emakumeen presentzia eskasa dela baloratzen da, bai maila teknikoan, baita egon izan diren parte hartzeko foroetan ere. Horretan eragina dauka, bai emakumeen parte hartzeko kultura eskasak, baita entitate publikoek horiek integratzeko duten sentsibilizazio eskasak ere.</li> <li>• <i>Mujer y ciudad</i> lanari dagokionez, parte-hartze handikoa izan zela baloratzen da. Baina partaideek esaten dute ez dakitela lan horrek jarraipenik izan duen, ezta euren diagnostikoa kontuan izan den ere. Prozesuak ez du jarraipenik izan eta asoziazio hauek ez dira integratuak izan gai honetarako sortu diren parte hartzeko foroetan.</li> </ul>



## 2 .AUKERA-BERDINTASUNA UDALERRIAN

### 2.5. Hirigintza eta garraio publikoa

#### 2.5.2. Udalerriko ahulezi eta indar nagusiak



Sailak	Ahuleziak	Indarrak
<b>Zerbitzuak</b>	<p>Komun publiko eza.</p> <p>Auzoetan komertzioak ixtearen joera.</p>	<p>-Auzoetan komertzioa. Dena den, auzo batzuetan komertzio lokala itxi egin da.</p> <p>-Herriko iturriak.</p> <p>-Zentro komertzialaren balorazio positiboa, mugimendu anitz sortzen baitu..</p> <p>-Kiroldegiak</p> <p>-Ludotekak eta gazte-lekuak</p>
<b>Mugikortasuna</b>	<p>-Ez dira beti baliabide nahikoak jartzen oinezko eta bizikletazkoentzako bideetan obrak daudenean.</p> <p>-Autobus-bonoa ez da behar bezain merkea. Beharrezkoa dute auzo altuetan bizi direnek.</p> <p>-Sarbide zaila auzo altuetan bizi diren pertsona nagusientzat.</p> <p>-Lotura falta industrialdeekin.</p> <p>-Lotura falta San Markosenekin.</p>	<p>-Garraio publikoak ibilbide ezberdinak egiten ditu.</p> <p>-Arrapala onak, erosoak eta ez-irristakorrak.</p> <p>-Donostiarekin konexio onak.</p> <p>-Kaputxinoetako ekintza berriak.</p> <p>-Bidegorri-sareak.</p>
<b>Espazio publikoa</b>	<p>-Zona berde gutxi.</p> <p>-Itzala sortuko duten zuhaitz gutxiegi plazetan.</p> <p>-Erabilgarri ez dauden zona berdeak txakurren gorozkiengatik.</p>	<p>-Hobekuntzak: Fanderia, zentrotik industria ateratzea, zona berde gehiago eta bidegorriak.</p> <p>-Xenpelar moduko plazak: bankuekin, itzala, komertzioa, haur-parkea eta estalitako zona.</p> <p>-Paseatzeko zona zabalak era oinezkoentzako zonak.</p>
<b>Seguritatea</b>	<p>-Argitasun gutxi ibilbide batzuetan eta segurtasun-eza sortzen duten bide zatiak, batez ere, gauzez.</p>	<p>-Orokorrean, zaindutako zonak eta haur eta nagusientzako segurtasun-zonak.</p>
<b>Ingurumena</b>	<p>-Paper-fabrikak arazoak sortzen ditu: lurrunketa kimikoak, araztegiko usainak eta abar. Dena den, soinuaren arazoa hobetuz doa.</p> <p>-San Markos: usaina, batez ere Beraunek jasaten duena.</p> <p>-Ibaiaren kutsadura.</p>	




## 2 .AUKERA-BERDINTASUNA UDALERRIAN

### 2.5. Hirigintza eta garraio publikoa



#### 2.5.3. Mugikortasuna

EGUNGO EGOERA	BALORAZIOA / PERTZEPZIOA
<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2001eko <i>Hiri-antolamendurako plan nagusiaren arabera</i>, gehiengoak dira hiritik kanpora egiten diren bidaiak (%54). Horietatik %48 garraio publikoa erabiliz egiten dira.</li> </ul>  <ul style="list-style-type: none"> <li>• Hiri barruko bidai gehienak oinez egiten dira (%73). Kotxea erabiltzen denean, nagusiki, lanera joateko da.</li> <li>• Bereziki, 2003an Erreterian <i>Emakumeen egoeraren inguruko ikerketa soziologikoaren arabera</i>, emakumeak: <ul style="list-style-type: none"> <li>– Emakumeen erdiak baino gehiago, eguneko erosketak egitera, oinez joaten da.</li> <li>– Lanera joateko, neurri berean erabiltzen dute garraio publikoa (%36) eta kotxea (%35). %26 oinez mugitzen da.</li> <li>– Euren seme-alabak eskolara laguntzeko, %61 oinez doa.</li> </ul> </li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Obrak egoten direnean, oinezkoak ez direla kontuan hartzen baloratzen da (sarritan zebra-bideak ez dira zuzenki adierazten, ez dira arrapalak jartzen eta abar.).</li> <li>• Positiboki baloratzen da kotxearen erabilera hiri barruan jaitsi izana; nahiz eta, zentzu handian, TAO sistemaren ezarreragatik dela uste.</li> <li>• Autobus-zerbitzua positiboki baloratzen da, hiritarren eskaeretara egokitzen jakin duen heinean. Bonobus, plataformak eta horrelako aspektuak azpimarratzen dira.</li> <li>• Hala ere, lotura batzuk hobetzeko daudela adierazten da. Ez dago garraio publikoaren zerbitzurik San Markosenera eta oso zaila da industrialde batzuetara garraio publikoan iristea, adibidez.</li> </ul>





## 2 .AUKERA-BERDINTASUNA UDALERRIAN

### 2.5. Hirigintza eta garraio publikoa



#### 2.5.4. Ondorioak

##### ONDORIOAK

- Sormen- eta erabakitze-postuetan **emakumearen presentzia urri** dela ikusten da, maila teknikoan zein herritarrean. Hirigintzarako sortu berria den parte hartzeko foroak ez ditu kontuan hartu, adibidez, “mujer y ciudad” proiektuan parte hartu zuten emakumeen asoziazioak.
- 2003an, Errenteriako emakume-taldeek aurretik izendatutako hiriko guneen inguruko diagnostikoa egin zuten : **Auzo Elkarteen Emakume Taldeen Diagnostikoa. 2003**, Udalerriaren ahulezia eta indarrak identifikatzeko. Oso ondo baloratzen den esperientzia da eta, gainera, bertan aztertutakoaren aspektu batzuk jasotzen joan direla adierazten da. Dena den, jarraipena izan ez duen lan batez ari gara.
- Hirigintza-mailan, **positiboki baloratzen da**: zentro komertzialaren eraikuntza, aktibitate handia sortu baitu; Fanderia sortzea; bidegorrien sarea zabaltzea; herritik kanpora eramaten joan den industria; Kaputxinoetako ekintza berria eta abar.
- Dena dela, **jaso ez diren aspektuak edo sortu berri** direnak ikusten dira:
  - Paper-fabrikak sortzen duen soinu-arazoa.
  - Komun publiko eza.
  - Argitasun gutxiko puntu nahiz bide zatiak.
  - Auzoetako komertzioa desagertzea.
  - San Markosetik sortutako usainak.
  - Obrak daudenean, oinezkoentzako baliabide urriak.
- **Hiriko garraio publikoa** orokorrean hobetu egin da (sarea hobetu da, bono-busa, plataformak eraikitzea...). Hobetu beharreko aspektutzat, adibidez, emakumeak lanera errazago iristeko industrialdeetarako sarbidea hobetzea edo San Markosenerako lotura aipatzen dira.





## 2 .AUKERA-BERDINTASUNA UDALERRIAN

### 2.6. Gizarteratzea

#### 2.6.1. Biztanleriaren ezaugarri orokorrak



#### EGUNGO EGOERA

- 2007aren bukaeran, erroldaren arabera, errenterian 38.763 pertsona bizi ziren; horietatik, 19.757 emakumezkoak ziren.
- 50 urte arte, gizonezkoak dira gehiengo urte tarte guztietan. Baina, 50 urtetik aurrera, desoreka aldatu egiten da emakumeen aldera eta diferentzia handituz doa adina gora doan heinean. Horrela, 65 urtetik gorako biztanlerian, emakumeak % 58,56 dira.
- Kasu guztietan, desoreka handiena ematen da 80 urtetik aurrera.
- Biztanleria guztia kontuan izanda, 65 urtetik gorako pertsonak %18,5 dira, eta emakumezkoen kolektiboa %21,7.
- Biztanleriaren datuen artean, pisu berezia hartzen du etorkin-kopuruak, biztanleria osoaren %4 suposatzen baitu. Etorkinen artean ere, emakumeen presentzia pixka bat altuago da.

Pertsona-etorkinak guztira	Emakumeak	Gizonak
1.613	820	793

Iturria: Errenteriako Udala. 2007.

- Behar bereziak dituen beste kolektiboa ezinduena da, biztanleriaren %7 dira (2.736 pertsona). (2003ko datuak).
- Edo guraso bakarreko familiak, zeinetan emakumeak ia presentzia osoa duen.

Guraso bakarreko familiak	Kopurua	%
Guraso bakarreko familietako aitak	250	15,9
Guraso bakarreko familietako amak	1.322	84,1

Iturria: Eustat, 2005

- *Errenteriako emakumeen egoeraren inguruko ikerketa soziologikoaren arabera (2003), ia 10 emakumetatik 2k dependentzia-egoeran dauden pertsonak zituzten euren etxeetan; 45 urtetik gorako emakumeei dagokienez, ehunekoia %30era iristen da.*



## 2 .AUKERA-BERDINTASUNA UDALERRIAN

### 2.6. Gizarteratzea

#### 2.6.2. Udal-errekurtsoak



#### EGUNGO EGOERA

- Udaleko Zerbitzu Sozialetatik batez ere, honakoaz arduratzen dira:
  - Dauden laguntzen inguruko informazioa eskaintzea (oinarrizko errenta, gizarte-larrialdietarako laguntzak-GLL...) eta bere tramitazioan aholkularitza.
  - Arlo hauetan esku-hartzea: familia, haurtzarora, gizarteratzea, adinduak.
- Laguntza ekonomikoei dagokienez, 2005eko datuen arabera, guraso bakarreko familiak izan ziren onuradunenak, batez ere. GLLak, nagusiki, alokairua ordaintzeko izan ziren.
- Datu hauek guztiak ez daude sexuaren arabera banatuak; beraz, ezin da emakumearen egoeraren analisi sakonik egin.

	2003	2005	2007
<b>Oinarrizko errenta</b>	369	390	403
<b>Gizarte-larrialdietarako laguntza</b>	332	499	271

Iturria: Gizarte Zerbitzuetako Memoriak 2003, 2005 eta 2007.

	Guraso bakarreko familiak	65 urtetik gorakoak	Pertsona bakarrak	Etorkinak	Besteak	Guztira
<b>Oinarrizko errenta</b>	106 (%29)	30 (%8)	141 (%38)	32 (%8,7)	60 (%16)	369 (%100)
<b>Gizarte-larrialdietarako laguntza</b>	85 (%26)	30 (%9)	100 (%30)	44 (%13)	73 (%22)	332 (%100)

Iturria: Gizarte Zerbitzuetako Memoria 2005



## 2 .AUKERA-BERDINTASUNA UDALERRIAN

### 2.6. Gizarteratzea

#### 2.6.2. Udal-errekurtsoak



EGUNGO EGOERA			BALORAZIOA / PERTZEPZIOA
<b>GLL hartzaileak guztira</b>	<b>499</b>	<b>%</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Etorkinei dagokienez, agente sozialen ustez, erroldatzea bultzatzeko, ez dira erraztasunak jartzen erroldatuta ez dauden pertsonentzat; horrek biztanleria honi eragiten dio. Eta erroldatzea, ezinbestekoa da oinarrizko eskubide batzuk onartzeko.</li> <li>• Urritasuna nahiz gaixotasun mentala duten pertsonen kasuan, Udalerrian dauden eragindako pertsonen kantitatea ez dago zehaztua eta, ondorioz, ezin da jakin Gureaken ikusten den errealitatea gizartearen errealitatea den edo emakumeak errazago geratu ohi diren etxean.</li> </ul>
Alokairua	301	60,3	
Oinarrizko beharrak	99	19,8	
Zorpetzea	85	17	
Konponketak	8	1,6	
Altzariak	6	1,1	
Iturria: Gizarte Zerbitzuetako Memoria 2005			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Laguntza familiarra ez duten eta zailtasunak dituzten guraso bakarreko familientzako, Udalak Haurdanik programa dauka, haur zaintzaile zerbitzua. 2007an, 11 familia izan ziren zerbitzu honen erabiltzaile.</li> <li>• Azken urteetako etorkinen kopuruaren gora egin du, baina hala ere hauei zuzendutako programa berezirik ez dago.</li> <li>• Urritasuna nahiz gaixotasun mentala duten pertsonak lan-merkaturatze nahiarekin, Gureakeko hainbat tailer babestu daude herrian; enplegatutako pertsonen %60 gizonak dira eta %40 emakumeak.</li> </ul>			



## 2 .AUKERA-BERDINTASUNA UDALERRIAN

### 2.6. Gizarteratzea

#### 2.6.2. Udal-errekurtsoak



EGUNGO EGOERA			BALORAZIOA / PERTZEPZIOA
<ul style="list-style-type: none"> <li>Nagusiki adinduei zuzendutako errekurtsoei dagokienez, adinduentzako bi egoitza daude Udalerrian, eguneko 2 zentro eta gainera, etxez etxeko laguntzaile baten zerbitzua ere badago. Etxez etxeko laguntzailearen laguntza eta egoitza erabiltzen dutenen bi herenak emakumeak dira.</li> </ul>			<ul style="list-style-type: none"> <li>Adinduei zuzendutako errekurtsoen inguruan, bai egoitzak baita eguneko zentroak ere, ez dira nahikoak eta ez dute gizartearen eskaera asetzen.</li> <li>Adinduentzat zerbitzuak nahikoa ez izateak, adinduen zaintzaren pisua emakumearen gain erortzea dakar, hauek baitira familiako dependentzia-egoeran dauden pertsonen zaintzaz gehien arduratzen direnak. Horren harira, gizonen inplikazio kaxkarra adierazten da.</li> </ul>
Erabiltzaileak	Adinduen egoitza	Etxez etxeko laguntzailea	
Guztira	128*	360	
Emakumeak	% 67	% 67	
Gizonak	% 33	% 33	
<p>Iturria: Gizarte Zerbitzuetako Memoria. 2005* eta 2007.</p>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>Errekurtso hauek erabiltzeko, eguneko zentroa eta egoitzarako bereziki, 2007an itxaron-zerrenda egon zen: 63 eskaera tramitatu gabe geratu ziren egoitzarako eta 12 eguneko zentrorako.</li> <li>Gainera, zonaldeka, erretiratuentzako 8 klub daude, zeinetan 3.000 pertsonatik gora parte hartzen duten, hau da, ia 65 urtetik gorako biztanleriaren erdiak.</li> </ul>			



## 2 .AUKERA-BERDINTASUNA UDALERRIAN

### 2.6. Gizarteratzea

#### 2.6.2. Udal-errekurtsoak



EGUNGO EGOERA	BALORAZIOA / PERTZEPZIOA
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Emakumeari bereziki zuzenduta, duela 25 urte baino gehiagoatik, badago programa bat, zeinetatik 11 emakumetalde kudeatu sortzeak eragin zuen; auzoka antolatzen dira, eta euren helburua emakumeak batu eta aktibitateak egitea da. 2006-2007 kurtsoan, talde hauek antolatutako ekintzetan, 1.000 emakumetik gora parte hartu dute.</li> <li>• Bestalde, ez da existitzen sexu-indarkeria jasandako emakumeentzat arreta berezirik; bere garaian, Eusko Jaurlaritzak diseinatutako protokoloa besterik ez. Ez da indarkeria jasandako pertsonen erregistrorik ere existitzen; beraz, ezin da jakin zenbat kasu ematen diren urtean. Dena den, badakigu 2007an 19 emakumek erabili zutela Udalaren arreta-zerbitzua.</li> <li>• Errekurtso moduan, indarkeria jasandako emakumeentzako pisua bat dago udalerrian. Pisua 2007. urtean emakume bakar batek erabili zuen.</li> <li>• Sexu-indarkeria kasuetan, ez da erasotzailearekin lanik egiten.</li> <li>• Arlo honetan sortutako beharrari erantzuna eman nahian, sexu-indarkeria jasan duten emakume-biktimentzako arretak bere gain hartzen du Zerbitzu Sozialean eta udaltzainei formazioa eta orientazioa ematea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Emakume-taldeen programa, erabiltzaileek oso ondo baloratzen dute, nahiz eta Asoziazioen Lege berriarekin arazoak egon daitezken orain arteko kudeaketa mota eramateko.</li> <li>• Sexu-indarkeria jasan duten emakumeenganako arreta-protokoloari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren protokoloa aldatzeko beharra ikusten da eta egokitu Udalerriko ezaugarri eta beharretara; edo baita eskualdera ere, zerbitzu hobea emateko asmoz. Era berean, beharrezko ikusten da erregistro orokor bat egotea, urteko kasuak kontabilizatzeko.</li> <li>• Harrera-pisuari dagokionez, pisua Udalerrian egotea era positiboan baloratzen da, emakumea bere inguruan egotea garrantzitsua baita. Nahiz eta muturreko larrialdi-kasuetarako, Udalerritik kanpo etxe bat egotea komeni den.</li> </ul>



## 2 .AUKERA-BERDINTASUNA UDALERRIAN

### 2.6. Gizarteratzea

#### 2.6.3. Ondorioak



#### ONDORIOAK

- Eman diren aldaketen ondorioz, biztanleriaren errealitate honetan, **hainbat kolektibo nagusitzen dira, batez ere, ezaugarri nagusia femeninoa** dutenak: 65 urtetik gorako biztanleria, guraso bakarreko familiak, etorkinak... Horiek guztiak gizarteratzearen ikuspegitik erantzun beharreko kolektiboak dira. Izan ere, generoa ezaugarri garrantzitsua izan arren, ez da beti banatutako datuekin lan egiten arlo hauetan eta, beraz, ez dugu nahiko genukeen irudia.
- Errealitate hauetan faktore femeninoa da nagusi, eta, gainera, 65 urtetik gorako pertsonen kolektiboa gero eta ugariagoa da. Ondorioz, **Gizarte Zerbitzuetako erabiltzaileak nagusiki emakumezkoak eta nagusiak** dira.
- **Adinduentzako** zerbitzuak eta, orokorrean, **dependentzia-egoeran dauden pertsonen zuzendutakoak**, ez dira nahikoak, ez baitute eskaera osoa asetzen. Horrek dakar lan hori emakumezkoaren gain erortzea, dependentzia-egoeran dauden pertsonen zaintza hauen esku egon ohi baita kasu gehienetan. Gizonezkoen inplikazioa eskasa dela adierazten da.
- **Emakumeari zuzendutako** programan, jadanik 11 talde autogestionatu daude, auzoka antolatuta. 2006-2007 kurtsoan, 1.000 emakumetik gora parte hartu dute talde hauek antolatutako ekintzetan. Programa hauen erabiltzaileak oso positiboki baloratzen dute.
- Erroldatuta ez dauden pertsonentzako **erroldatzea laguntzen duen ekintza aktibo nahiz positiborik ez dago**, eta horrek bereziki etorkinei eragiten die. Gainera, ez dago etorkinei zuzendutako programa berezirik.
- **Sexu-biolentzia jasaten duten pertsonen bereziki zuzendutako udal-programarik ez dago**. Eusko Jaurlaritzak diseinatutako protokoloa jarraitzen da, nahiz eta hobetu egin behar dela pentsatzen den, eskualdera zabalduz edo Udalerrira hobeto egokituz. Gainera, Udalean ez dira indarkeria jasandakoak erregistratzen, esaterako, sexu-indarkeria jasandako emakumeak. Bakarrik Gizarte Zerbitzuetara joandako emakumeen kasuak erregistratzen dira, hau da, 19 kasu 2007an.



## 2 .AUKERA-BERDINTASUNA UDALERRIAN

### 2.7. Osasuna



#### 2.7.1. Udal-zerbitzu eta -azpiegiturak

##### EGUNGO EGOERA

Anbulatorioak	Osasun-zentroak	Larrialdi-zerbitzuak	Osasun mentaleko zentroak
1	2	1	1

ZENTROA	ZERBITZUA
<b>Espezialitateko ambulatorioak Larzabal -Osakidetza</b>	Kirurgia, traumatologia, arnas-aparatua, kardiologia, oftalmologia, ginekologia, erradiologia, psikiatria. Oarsoaldeko eskualdeari zerbitzu ematen dio.
<b>Osasun-zentroa Beraun -Osakidetza</b>	Medikuntza orokorra, pediatria eta analisisa.
<b>Osasun-zentroa Iztietza</b>	Medikuntza orokorra, pediatria eta analisisa.
<b>Osasun mentaleko zentroa - Osakidetza</b>	Alkoholismoa, drogodependentzia eta psikiatriaren inguruko kontsultak. Ez da urgentzietako zentroa. Dohaineko zerbitzua da.
<b>Ekintza-Dasalud</b>	Ludopatiari laguntzako asoziazioa.

Iturria: Errenteriako Udala. 2008.

- Eskaintzen diren osasun-zerbitzu eta dauden zentroz gain, Osakidetzak Errenteriako bi osasun-zentroetan (Iztietza eta Beraun) gizarte-laguntzako zerbitzua eskaintzen du. Zerbitzu honen bitartez, eskaintzen da:
  - Erabiltzaile nahiz gaixoentzako informazio-zerbitzua (argitze-lanak, erreklamazioak eta kexak...).
  - Pertsona erabiltzailearen arabera, osasunarekin erlacionatutako errekurtsoak kudeatzen dira.





## 2 .AUKERA-BERDINTASUNA UDALERRIAN

### 2.7. Osasuna

#### 2.7.1. Udal-zerbitzu eta -azpiegiturak



EGUNGO EGOERA	BALORAZIOA /PERTZEPZIOA
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zerbitzu honen bidez erantzuten diren zalantzen arabera, badaude bereziki emakumeari lotutakoak, adibidez, bikote-arazoak, sexu-indarkeria eta dependentzia-egoeran dauden pertsonen zaintza.</li> <li>• Zentzu honetan, dependentzia-egoeran dauden pertsonen bat kargu duten emakumeentzako programa berezia dago, 3 urte darama martxan eta horren helburua emakume zaintzaile hauei laguntza zabala ematea da ( laguntza psikologikoa, zaintzaren inguruko formakuntza...). Errekurtso gutxi dituen programa da eta jarraipena emateko zailtasunak daude.</li> <li>• Programak mugatuak diren heinean, zerbitzu honen bidez emakumeei bereziki eragiten dien gaixotasunen keak eta erreklamazioak ere jasotzen dira (adibidez, adin-tarte bati eskaintzen diote estaldura).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Emakume zaintzaileei eskaintzen zaien laguntza-programa oso ondo baloratzen dute, bai erabiltzaileek, baita Osakidetzako gizarte-laguntzaileek ere; baina errekurtso mugatuak ditu.</li> <li>• Zabalduko mezu eta eskaintako zerbitzuen artean ez-parekotasuna dagoela uste da (mamografie, azterketa ginekologikoei...dagokienez); beraz, emakume askok zerbitzu pribatuetara jotzen dute.</li> <li>• Erreproduzioari buruzko gaiei dagokienez, protokoloa oso egituratuta dagoela uste da eta emakumeek erabakitzeko tarte txikia dutela.</li> <li>• Orokorrean, prebentzioko lan gutxi egiten dela uste da, eta, zentzora datozen pertsonen arreta emateaz gain, esfortzu berezia egin beharko litzateke prebentzian. Dena den, errekurtsoak eskasak direla kontsideratzen da.</li> </ul>





## 2 .AUKERA-BERDINTASUNA UDALERRIAN

### 2.7. Osasuna



#### 2.7.1. Udal-zerbitzu eta -azpiegiturak

EGUNGO EGOERA	BALORAZIOA / PERTZEPZIOA
<ul style="list-style-type: none"><li>• Osasun-zentroak sexu-indarkeriako kasuak detektatzeko leku garrantzitsuenak dira, osasun-pertsonalaren bitartez.</li><li>• Erabiltzaileen datuei dagokionez, ez dira sexuaren arabera banatutako datuak jasotzen.</li><li>• Osasun-zerbitzu guztiak Osakidetza bidez eskaintzen diren heinean, gai hauetan Udalak eragin mugatua dauka.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Sexu-indarkeriako kasua detektatu denean, gaiaren inguruko sentsibilizazio handia dagoela uste da, osasun-pertsonalaren artean. Dena den, kasu hauek bideratzeko zailtasunak ikusten dira: ez dute formaziorik jaso honen inguruan, errekurso profesionalak eta pertsonalak falta dira eta, gainera, zaila ikusten da legeak esaten duena betetzea, askotan biktimak ez du nahi egin legeak agintzen duena.</li><li>• Erabiltzaileen datuei dagokionez, beharrezkoa da datu horiek sexuaren arabera banatuta jasotzea, errealitateari egokitutako beharren diagnostikoa osatu ahal izateko.</li></ul>



## 2 .AUKERA-BERDINTASUNA UDALERRIAN

### 2.7. Osasuna

#### 2.7.2. Ondorioak



#### ONDORIOAK

- Udalerriko **osasunerako azpiegitura** honakoaz osatuta dago: 2 osasun-zentro (Iztietia eta Beraun), espezialitatetako anbulatorioa (Lartzabal), osasun mentaleko zentro bat eta larrialdietarako zerbitzua. Osakidetzaren eskutik ere, gizarte-laguntzarako zerbitzua eskaintzen da Errenteriako bi osasun-zentroetan.
- Programak mugatuak direnez, emakumeari eragiten dioten gaixotasunen inguruan **erreklamazioak eta kexak** jasotzen dira. Ez-parekotasuna igarri da zabaltzen diren mezu eta eskaintzen diren mezuen artean (mamografiak, azterketa ginekologikoak...). Ondorioz, emakume askok zerbitzu pribatuetara jotzeko erabakia hartzen dute.
- **Erreproduzioari** lotutako gaietan, protokoloak oso egituratuak daude eta emakumeak erabakitzeko tarte gutxi duela ikus daiteke.
- Gizarte-laguntzaren bidez artatzen diren kasuen artean, **emakumeari bereziki lotutako bi problematika** daude: bikote-arazoak edota sexu-indarkeria eta dependentzia-egoeran daudenen zaintza.
- Zaintzaileen kasuan, azken 3 urteetan garatutako **programa bat dago dependentzia-egoeran dauden pertsonen zaintzan** jarduten duten emakumeei zuzenduta. Positiboki baloratzen da, baina programa oso mugatua da, errekurtsio gutxirekin. Programa honi jarraipena emateko arazoak daude.
- **Sexu-indarkeriako** kasuei dagokienez, osasun-zentroak **kasuak antzemateko** leku garrantzitsuak dira. Osasun-pertsonalaren artean badago sentsibilizazioa gai honen inguruan, baina zailtasunak aurkitzen dira kasu hauei bai heldu eta bideratzeko, baita legeak esaten duena betetzeko ere.



**PARTE HARTU DUTEN UDALERRIKO ASOZIAZIO ETA ENTITATEAK**

• Beraun Berri ikastetxea	• Itzatu Emakume taldea	• DYA
• Langaitz Ikastola	• Amalatz Talde Feminista	• Cruz Roja / Gurutze Gorria
• Koldo Mitxelena ikastetxea	• Bilgune Feminista	• Anbulatorio Larzabal
• San José Hijas de la Cruz ikastetxea	• Alai	• Landare/Eple
• Cristobal Gamón BHI	• Lahar Elkargoa	• Judo Club Sayoa
• Orereta ikastola	• Asociación Garaipen	• Coral Andra-Mari
• Don Bosco ikastetxea	• Escuela Taller	• SDC Ondarra
• IES Koldo Mitxelena	• Oarsoaldea S.A.	• Club Beti Ona
• Beraun Berriko guraso elkarte	• Fondo Formación Euskadi	• ATL Alaia
• T.P. Gureak S.A.	• INEM	• Hibaika AE
• Fundación Sarea	• ELA sindikatua	• Ekinbi aisialdia
• Orotarik Aisialdi taldea	• Gure-Leku	• Laguntasuna
• Nagusilan	• Caritas	• Oiarso
• Kalegorrian	• Jubilados beraun	• Emaus Fundación Social
• AAVV fanderia	• Plataforma Antiincineradora	• AAVV Beraun